

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Antonio Urbeltz Navarro

*Donostia,
Gipuzkoa
(1940)*

Aurkibidea



Biografia



Iruñean jaioa, guraso biak nafarrak zituen. Hilabete zeukanean, familia Donostiara joan zen bizitzera, Saguesera, eta Donostian bizi izan da beti. Biteri eskolan ikasi zuen, Grosen. 1958an Goizaldi dantza taldean hasi zen, eta 1965etik aurrera Argia dantza taldeko zuzendaria izan zen, [Marian Arregi](#) emaztearekin batera. Euskal dantza eta musika tradizionala berreskuratzen lan handia egin zuten biek. Folklorista eta ikertzaile ezaguna da Urbeltz. San Telmo museoan elkarrizketatu dugu. Hantxe egiten zituzten entseguak Argia taldekoek, sasoi batean.

Zintak

DON-196

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-03-20
- **Iraupena:** 142 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Oteiza eta biak ia egun berean jaio ziren

- **Erref:** DON-196/003
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:02:07. **Bukatu:** 00:04:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gurasoak Iruñean ezkondu eta Donostiara joan ziren bizitzera. Okendo kaleko Iriondo pentsioan egon ziren hasieran. Oteizaren aitak hotela zeukan kale hartan. Oteiza baino ordu batzuk lehenago jaio zela dio.

2. Emaztearekiko sinkronizitatea

- **Erref:** DON-196/004
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 00:04:27. **Bukatu:** 00:08:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak

Laburpena:

Gustav Jung-en sinkronizitateari buruzko teoria kontatzen du. Bere aita Uretan sortu zen, Erro bailaran. Eta emaztea jaio zen kalearen lehenagoko izena Ureta zela kontatzen du. Beste hainbat kointzidentzia kontatzen ditu.

3. Sagues, Donostiako periferia zenekoa

- **Erref:** DON-196/007
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:10:37. **Bukatu:** 00:12:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Aita estatuko langilea zen. Saguesen bizi izan zen gurasoekin, orduko Donostiako periferian. Zabortegia eta prostituziorako lekua zen Sagues.

4. Sagueseko arratoiak

- **Erref:** DON-196/008
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:12:59. **Bukatu:** 00:13:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Sagueseko hiltegia etxearen azpian zegoen. Arratoi handiak ibiltzen ziren.

5. Biteriko eskolan

- **Erref:** DON-196/011
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:16:34. **Bukatu:** 00:17:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Biteriko udal eskoletan ikasi zuen. Lehenengo eguneko bizipena kontatzen du.

6. Aitari galdezka, euskaraz ikasi nahian

- **Erref:** DON-196/012
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:17:36. **Bukatu:** 00:20:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Sagues auzoan gehienak erdaldunak ziren. Aita euskalduna zen eta ama ez. Amak esaten zion jendeari Urbeltz abizena euskal-frantsesa zela. Oteiza etxean euskara jaso gabe geratu zela dio. Aita euskaraz entzuten zuenean, harrituta geratzen zen. Hamabost urterekin, aitari galdezka hasi zen euskaraz ikasteko.

7. Txalaparta, hileta errituetarako tresna

- **Erref:** DON-196/013
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:20:39. **Bukatu:** 00:22:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Aitak txalapartaren zentzua eman zion. 1965-66an xamanismoaz irakurtzen hasi zen. Asia erdialdeko ohitura zaharra zen norbait hiltzen zenean, zaldia hiltzea haren arimak hildakoarenari lagun ziezaion. Aitak azaldu zion txalapartak zaldiak egiten zuela bere ibileran. Lotura egin zuen eta txalaparta hiletetako musika tresna dela dio.

8. Txalaparta, tresna sakratua

- **Erref:** DON-196/014
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:22:52. **Bukatu:** 00:24:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Artze anaiak hasi ziren txalapartarekin, baina jakin gabe zein zen tresnaren zentzua. Tresna sakratua zela azaltzen du.

9. Maria Dolores Agirrerekin euskara klaseak

- **Erref:** DON-196/017
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:29:12. **Bukatu:** 00:30:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

1962an Otsagin soldadutzan egon zen hilabetez. Hango zaharrak entzuten zituen. 1958 inguruan Maria Dolores Agirrerengana joan zen euskara ikasteko, mutil ikasle bakarra zen.

10. Euskara ikasteko, aitari galdez

- **Erref:** DON-196/019
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:31:30. **Bukatu:** 00:32:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

"Aita gurea" euskaraz ikasi zuen buruz. Aitari behin eta berriz galdetzen zion euskaraz gauzak nola esaten ziren. Hark nafarreraz egiten zuen.

11. Goizaldi dantza taldean hasi zenekoa

- **Erref:** DON-196/021
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:32:52. **Bukatu:** 00:34:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Txikitatik interesatu zen euskal kulturari. Beretzat mundu misteriotsua zen. Gizon batek gonbita egin zion dantzarako. Horrela hasi zen Goizaldi dantza taldean.

12. San Telmoko objektu etnografikoekin liluratua

- **Erref:** DON-196/023
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:37:46. **Bukatu:** 00:39:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

Hamabost urte zituela, San Telmo museora joaten hasi zen eta liluratu egiten zuten objektu etnografikoak.

13. Trio Kemenen sorrera

- **Erref:** DON-196/027
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:47:19. **Bukatu:** 00:50:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Marianek Trio Kemen taldea 1960 inguruan sortu zuen, Marian Murgiondo eta Enkarni Uriarterekin batera. Haiek ere Goizaldin hasi ziren. Madrilen egon ziren telebistan.

14. Trio Kemenen Ondarroako kontzertua

- **Erref:** DON-196/028
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:50:20. **Bukatu:** 00:52:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Trio Kemen oso ezaguna egin zen. Ondarroan kontzertua eman zutenean, eta euskaraz hasi zirenean, ikaragarria izan zela dio.

15. Marian eta Ez dok amairu

- **Erref:** DON-196/030
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:53:59. **Bukatu:** 00:56:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Ez dok amairu taldean hasi zen Marian baina goiz xamar utzi zuen. Oteizarekin "Escuela vasca de artes tradicionales" eskolan ibili ziren Marian eta biak. Marianek Xabier Leteren diska batean jo zuen eta ondoren Benito Lertsundirekin, hainbat urtez.

16. Ezpata dantza eta mandeuliak

- **Erref:** DON-196/037
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:12:32. **Bukatu:** 01:14:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

1965ean Berrizen egon ziren Alejandro Aldekoarekin ezpata dantza ikasten. Mandeuliari ezpata esaten zitzaiola konturatzean, ezpata dantza haien kontrako konjurua zela ondorioztatu zuen.

17. Ez dok amairu dantzan

- **Erref:** DON-196/041
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:19:07. **Bukatu:** 01:20:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Ez dok amairuren "Baga Biga Higa" sentikarian Baztango mutil dantza bat egin zuten. Beraiek erakutsi zieten dantza.

18. Argia dantza taldeko musikaren oinarria

- **Erref:** DON-196/045
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:24:02. **Bukatu:** 01:25:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Azkueren kantutegia, Aita Donostia eta herriz herri egindako grabaketak izan dituzte oinarri Argia dantza taldean. 1980an Zagreben egon ziren (Kroazia), Sardinian egon ziren, Hungarian, Ingalaterran, Belgikan...

19. Europa ekialdekoak dantza emanaldietan eredugarri

- **Erref:** DON-196/046
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 01:25:43. **Bukatu:** 01:28:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Eusko Jaurilaritzak Eresoinka sortu zuen. Alfabeto zirilikoarekin idazten zuten Eresoinka izena. Europa ekialdeko dantza emanaldietan ikusi zuten zelako jakintza zeukaten beraien herriaren historiaz. Euskaldunei eragindako zapalkuntzaz hitz egiten du, esanez, miraria dela egin den berreskuratze lana.

20. Nafarroako dantzak erdigunera

- **Erref:** DON-196/047
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:28:37. **Bukatu:** 01:29:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Marian emaztearen eta bien asmoa izan zen Nafarroako dantzak euskal kulturaren erdigunean ipintzea, errepublika garaian baztertu egin zituztelako.

21. Gitarra euskalduna ere bada

- **Erref:** DON-196/049

- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 01:30:10. **Bukatu:** 01:31:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Ez dok amairuk gitarra jotzeko arazoa zeukan, ez zelako euskal tresnatzat jotzen. Iparragirreri eskerrak konpondu zen auzia.

22. Inauteriak, zomorroen kontrako erritu

- **Erref:** DON-196/052
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 01:33:57. **Bukatu:** 01:37:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

"Karnabal" hitza elizatik datorren ustea dauka. Garizuma aurreko garaiaz ari dela dio. Inauteri hitza inautetik datorrela dio, eta berdin aratuste hitza. Mozorrotzean zomorro bihurtzen garela dio, eta ordaina ematen zaiola zomorroari, erritu moduan. Iturengo jantzien adibidea ematen du.

23. Inauteria, gosearen kontrako konjurua

- **Erref:** DON-196/053
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 01:37:22. **Bukatu:** 01:41:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

Lantzeko inauterietako pertsonaien esanahia azaltzen du: Mielotxin gosea da; larrapoteari zalditxo esaten zaio Europa guztian; eta abar. Inauteria gosearen kontrako konjurua zela dio.

24. Inauterietako ezkilak eta mandeuliak

- **Erref:** DON-196/054
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:41:12. **Bukatu:** 01:42:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

Europako hainbat lekutan ezkilak erabiltzen dituzte inauterietan. Mandeulien kontra abereei jartzen zitzaizkien ezkilak.

25. Euskarak gorde ditu kristautasunaren aurreko errituak

- **Erref:** DON-196/055

- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 01:42:38. **Bukatu:** 01:43:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Euskarazko hitzek kristautasunaren aurreko errituen berri ematen dutela azaltzen du.

26. Oteizarekin gertuko harremana

- **Erref:** DON-196/057
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 01:44:46. **Bukatu:** 01:49:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Jorge Oteizarekin harrituta geratu zen eta gertuko harremana egin zuen. Kultura oso zabala, irudimena eta kontraesanak topatzeko abilezia zeuzkala kontatzen du. "Del cronlech vasco al zorro japonés" liburua ari da.

27. Dantza emanaldietan, musikari lehentasuna

- **Erref:** DON-196/062
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:53:55. **Bukatu:** 01:55:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Ikertutakoarekin eta ikasitakoarekin ikuskizunak egin zituzten. 1985ean Hungarian egon ziren eta han ikasi zuen dantza emanaldiak nola egin. Musikari lehentasuna eman behar zaiola dio.

28. Aldundiko Kultura zuzendari izan zenekoa

- **Erref:** DON-196/068
- **Iraupena:** 0:04:31. **Hasi:** 02:00:48. **Bukatu:** 02:05:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura

Laburpena:

Gipuzkoako Aldundiko Kultura zuzendaria izan zen, Xabier Leterekin (hau diputatua zenenean), hamasei hilabete inguruz. Adostasunetara heltzea ez dela erraza izaten dio. Adibidea jartzen du. Proiektu bat egina zeukan bizikleta eta kultura tradizionala uztartzeko, baina bidean geratu zen.

29. Aldundiko Kultura zuzendari; proiektuak ezin burutu

- **Erref:** DON-196/069
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 02:05:19. **Bukatu:** 02:06:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura

Laburpena:

Estokolmon goleta bat zegoen, hotel modukoa, motxiladun jende gaztearentzat. Zumaierako ideia berdintsua zeukaten baina hori ere bidean geratu zen.

30. Sinkronizazioaz

- **Erref:** DON-196/073
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 02:10:37. **Bukatu:** 02:12:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Carl Gustav Jung-ek kontatzen duen pasarte bat azaltzen du. Kakalardoei buruzko ametsak zituen emakume bat gerturatu zitzaion; emakumearekin hizketan zebilela, soinutxoak entzun zituen Jung-ek eta kakalardo bat agertu zen.

31. Larrapotea agertu zitzaionekoa

- **Erref:** DON-196/075
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 02:12:14. **Bukatu:** 02:13:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Unxeko San Martinen Nafarroako artxibategiko bi kideri larrapotearen izurriari buruzko azalpenak eman zizkien; haiek agurtzerakoan, etxearen goiko aldean larrapote bat agertu zen. Gertaera jasota laga zuen.

32. Marianen argazkiak

- **Erref:** DON-196/077
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 02:14:16. **Bukatu:** 02:17:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Marianen argazki batzuk agertzen ditu, azalpentxoak emanez.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com